# 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 JASANGARRITASUNA, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEA

**Programa:** 179400 EHIZA ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA

# LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 40 SOSTENIBILIDAD, AGRICULTURA Y MEDIO NATURAL

**Programa:** 179400 ORDENACIÓN Y GESTIÓN CINEGÉTICA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Arabako Lurralde Historikoko ehiza eta arrain jarduera normaltasunez egin da 2023an, aurreko denboraldiekin alderatuta.

Ehiza espezie gehienen harrapaketa kopuruari dagokionez, ehizaren kudeaketak ez du aldaketa handirik izan, eta ehiza larriko espezieen aprobetxamenduak eta kontrolak beherakada txiki bat izan dute oro har, ehizaldi kolektibo gutxiago egin direlako. Espezie horietako batzuek jarraitu dute banaketa eremuak ere zabaltzen, eta horrek nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei, naturguneei eta hiriguneei eragindako kalteak areagotu ditu. Ehiza xeheari dagokionez, azpimarratzekoa da Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako mendiko untxiaren arazoaren kontrola, mahasti laboreetan izandako kalteei dagokienez. Kalte horiek eskualdean ehiza larrialdia ezartzean arindu ziren; izan ere, horren kontrol neurriek espezie horrek eragindako kalteak murriztu zituzten.

Arrainen kudeaketari eta karramarro hazkuntzaren kontrolari dagokienez, azpimarratzekoa da lurraldean amuarrainaren arrantzak interes handia sortzen duela. Espezie horrek azken urteetako bilakaera positiboarekin jarraitzen du, harrapatutako aleen kopuruaren gorakadak adierazten duen bezala, nahiz eta ibaien baldintzak arrantzarako onuragarrienak izan ez, denboraldiko lehen zatian emaria pixkanaka murriztu baitzen. Horrek gauzatzen ari den kudeaketa ereduaren kalitatea bermatzen du, eta barruti berriak sortzeko tarte berriak irekitzea aztertzen ari gara. Bestalde, karramarro hazkuntzaren kontrolaren kudeaketaren aldaketaren balorazio ona egiten da, kontrolatzeko baimenak kenduta, gorabeherarik gertatu gabe; hori izan daiteke lurraldean emandako lizentzien gorakada txikiaren kausa.

A -EHIZA:

**1.- Ehizaren Lurralde Kontseilua eta Arabako**

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

La actividad cinegética y piscícola en el Territorio Histórico de Álava durante 2023 se ha desarrollado con normalidad en relación a las pasadas temporadas.

La gestión cinegética, en cuanto al número de capturas de la mayoría de las especies cinegéticas no ha sufrido grandes cambios, experimentando un ligero descenso general el aprovechamiento y control de las especies de caza mayor, como consecuencia del menor número de cacerías colectivas celebradas. Algunas de estas especies continuan ampliado también sus áreas de distribución con el consiguiente incremento en los daños a explotaciones agropecuarias, espacios naturales y núcleos urbanos. Respecto a la caza menor lo más destacable es el control de la problemática del conejo de monte en la Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa con relación a los daños producidos en cultivos de viñedo que se vieron paliados con la declaración de la emergencia cinegética en la comarca, cuyas medidas de control contuvieron los daños provocados por esta especie.

En cuanto a la gestión piscícola, y control astacícola, a destacar el gran interés que suscita la pesca de la trucha en el Territorio, especie que continúa la evolución positiva de los últimos años, como manifiesta el aumento en el número de ejemplares capturados, todo ello a pesar de que las condiciones de los ríos no han sido las más favorables para la pesca, con un caudal que se fue reduciendo paulatinamente en el primer tramo de la temporada. Esto avala la calidad del modelo de gestión que se está llevando a cabo abriendo planteandonos abrir nuevos tramos para la creación de nuevos cotos. Por otro lado el cambio de gestión en el control astacícola, eliminando los permisos para su control se valora positivamente, sin que se hayan producido incidencias, y siendo esta la posible causa en el ligero incremento de licencias expedidas en el territorio.

A -CAZA:

**1.- Consejo Territorial de Caza y tramitación**

**Lurralde Historikoko Ehizari buruzko foru aginduak izapidetzea.**

Ehizaren Lurralde Kontseilua 2023ko maiatzaren 4an egin zen.

**2.- Ehizari buruzko araudia. Arabako Lurralde Historikoko ehizari buruzko foru aginduak.**

Araban ehiza jarduera arautzeko, foru agindu bat argitaratzen da urtero, Debekualdien Foru Agindua deritzona, 8/2004 Foru Arauaren 32. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko ehizari buruzko 2/2011 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Arabako Lurralde Historikoan urtero ehizan aritzea arautzen duen araudi hori uztailaren 28ko 33/2023 Foru Aginduaren bidez onartu zen. Foru agindu horrek 2023-2024 kanpainan Arabako Lurralde Historikoan ehizan aritzea arautzen duen berariazko araudia ezartzen du, eta izaera orokorragoko beste batek osatzen du: uztailaren 13ko 225/2020 Foru Aginduak, Arabako Lurralde Historikoko ehiza-modalitateak arautzen dituen araudi orokorra ezartzen duenak.

Gainera, Arabako Lurralde Historikoko ehizari buruzko ekainaren 14ko 8/2004 Foru Araua ere badugu.

Lurraldeko ehiza jarduera beste foru araudi batek ere arautzen du, ehizarekin eta ehiza espezieen kontrolarekin zerikusia duten gaiak arautzen dituena:

- Apirilaren 7ko 134/2017 Foru Agindua, ehiza espezieek eragindako kalteak kontrolatzeko neurriei buruzkoa. Horren osagarri, aldi baterako ehiza larrialdiko eremua izendatu da untxiak (*Oryctolagus cuniculus*) Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza, abeltzaintza eta mendietan eragindako kalteengatik.

- 48/2011 Foru Dekretua, ehiza espezieen ekoizpena, birpopulatzea eta askatzea arautzen duena, bai eta ehiza erakustaldietarako erabilera eta ehiza eremu industrialen eta trebakuntza eremuen funtzionamendua ere.



**Órdenes Forales de caza del Territorio Histórico de Álava.**

El Consejo Territorial de Caza se celebró 4 de mayo de 2023.

**2.- Normativa de caza. Órdenes Forales de caza del Territorio Histórico de Álava.**

Para regular la actividad cinegética en Álava se publica anualmente la conocida como Orden Foral de Vedas en aplicación de lo establecido en el artículo 32 de la Norma Foral 8/2004 y el artículo 31 de la ley 2/2011de caza del País Vasco.

Esta normativa que regula anualmente el ejercicio de la caza en el Territorio Histórico de Álava se aprobó mediante la Orden Foral 33/2023 de 28 de julio por la que establece la normativa específica que regula el ejercicio de la caza en el Territorio Histórico de Álava durante la campaña 2023-2024, y se complementa con otra de carácter más global, la Orden Foral 225/2020 de 13 de julio por la que se establece la normativa general que regula las distintas modalidades de caza en el Territorio Histórico de Álava.

Además contamos con la Norma Foral 8/2004, de 14 de junio, de caza del Territorio Histórica de Alava.

La actividad cinegética del Territorio también se rige por otra normativa de carácter foral que regula temas relacionados con la caza y el control de las especies cinegéticas:

- La Orden Foral 134/2017 de 7 de abril, de medidas de control por daños producidos por especies cinegéticas, que se ha complementado con la declaración del área de emergencia cinegética temporal por perjuicios ocasionados por el conejo (*Oryctolagus cuniculus*) para la agricultura, ganadería y montes, en el Territorio Histórico de Álava.

- El Decreto Foral 48/2011 que regula la producción, repoblación y suelta de especies cinegéticas, así como su uso para caza exhibición y el funcionamiento de las zonas industriales de caza y de las zonas de adiestramiento.

- 390/2002 Foru Agindua, ekainaren 26koa, untxiak suntsitzeko erabiltzen diren hudoak izateko behar diren administrazio baimenak arautzea onartzen duena.

- 39/2010 Foru Agindua, otsailaren 18koa, ehiza erabilerarako hudoak edukitzeko eskaerak aurkezteko epeak ezartzen dituena.

- 155/1999 Foru Agindua, urriaren 27koa, Arabako Lurralde Historikoko arku bidezko ehizaren araudia ezartzen duena.

**3.- Ehiza lurrak. Ehiza barrutiak**

Ehizan jarduteari begira, lurrak hiru kategoriatan sailkatzen dira: ehiza lurrak, Arabako Lurralde Historikoan ehiza barrutiek osatuak; ehizarako ez diren lurrak, faunaren babeslekuak eta ehizarako debekatuta dauden eremuak hartzen dituztenak; eta ehiza araubide bereziko lurrak, naturagune babestuek eta segurtasun eremuek osatuak.

Ehiza azalerari eta, beraz, ehiza barrutiei dagokienez, indarrean dauden barrutien kopurua 136koa da, eta 283.009 ha-ko azalera duela kalkulatzen da.

AFAk bi lankidetza hitzarmenen bidez kudeatzen du ehiza, lurraldean dauden ehiza barrutien bi elkarte nagusiekin (ARABA CAZADORES GESTIÓN eta ARTIO). Bien artean, lurralde historikoan egun aitortutako 135 barrutietatik 129 hartzen dituzte guztira.

2023an, ARTIO ehiza barrutien elkarteak, ARAN aholkularitza teknikoaren bidez, 55 barruti kudeatu ditu guztira, 133.811 hektareako azalerarekin, eta ARABA CAZADORES GESTIÓN elkarteak 74 barruti kudeatu ditu, horietako bakoitzak 138.725 ha inguruko azalera duela. Ikus daitekeenez, bi elkarteen artean kudeatzen da ehiza azalera osoaren % 96; gainerakoa Labraza, Okondo, Delika, Tertanga, Pico Marinda eta Gasteizko Mendi Garaien barrutien artean dago banatuta, 10.473 hektarea guztira.

- La Orden Foral 390/2002, de 26 de junio, por la que se aprueba la regulación de la concesión de autorizaciones administrativas para la tenencia de hurones destinados a la realización de descastes de conejos.

- La Orden Foral 39/2010, de 18 de febrero, por la que se establece los plazos de presentación de las solicitudes de las autorizaciones de tenencia de hurones, destinados a usos cinegéticos.

- La Orden Foral 155/1999 de fecha de 27 de octubre, por la que se establece la normativa que regirá el ejercicio de la caza con arco en el Territorio Histórico de Álava.

**3.- Terrenos cinegéticos. Cotos de Caza**

A los efectos del ejercicio de la caza, los terrenos se clasifican en tres categorías: terrenos cinegéticos, que en el T.H. de Alava están constituidos por cotos de caza, terrenos no cinegéticos que comprenden los refugios de fauna y las zonas vedadas de caza y los terrenos de régimen cinegético especial formado por los espacios naturales protegidos y las zonas de seguridad.

En relación con la superficie cinegética, y por tanto a los cotos de caza, el número de acotados vigentes se mantiene estable en 135 con una superficie cinegética estimada en 283.009 ha.

La DFA gestiona la caza mediante dos convenios de colaboración con las dos asociaciones mayoritarias de cotos de caza existentes en el Territorio, ARABA CAZADORES GESTIÓN y ARTIO. Entre las dos abarcan un total de 129 acotados de los 135 acotados declarados actualmente en el Territorio Histórico.

Durante el año 2023, la asociación de cotos ARTIO, mediante su asesoría técnica ARAN han gestionado un total de 55 cotos con una superficie de 133.811 ha, y la asociación ARABA CAZADORES GESTIÓN ha gestionado 74 cotos con una superficie en torno a las 138.725 ha cada una de ellas. Como se observa, entre las dos asociaciones se gestiona el 96 % de la superficie cinegética total, el resto de la superficie está repartida entre los cotos de Labraza, Okondo, Delika, Tertanga, Pico Marinda y Montes Altos de Vitoria que engloban un total 10.473 hectáreas.

Ehizarako ez diren lurrei dagokienez, debekatuta dago ehizan jardutea honako eremu hauetan: ehizarako eta araubide berezirako ez diren edo faunaren babeslekutzat jotzen diren lurretan, bai eta beste lege aurreikuspen batzuen ondorioz debekualdia deklaratzen den beste lurretan ere.

Araban, badira ehiza eremu izendatu gabeko eremuak, eta horietan ezin da ehizatu. Eremu horietan, nekazaritza kalteak direla eta, ehiza espezieen populazioa kontrolatzeko neurriak baimendu ahal izango dira, betiere lurraren titularrak eskatuta (itxaronaldiak, eskopetarik gabeko uxaldiak eta basurdearentzako kakoak...).

Azalera horretan, batez ere, barruti gisa eratu ez diren erakundeen lurrak sartzen dira, hala nola Saratxoko Administrazio Batzarrenak, Caranca y Miomako ABrenak, Hermua-Larreako ABren lurrak, Subilla Gasteizko ABrenak, Audikanako ABrenak, Barrongo ABrenak, La Serna herrigunearenak, Guardia udalerrian, eta EAEko Berrozi, Kalikatxo (Gasteiz udalerrian), Lacorzana eta Layazako (Guardian) eremu debekatuak eta Bizkaiarekin mugakide mugatua.

Izendatutako segurtasun eremuei dagokienez, Gasteizko segurtasun eremua (Arakako base militarra barne), Zurbanoko segurtasun eremua, Zuhatzuko segurtasun eremua eta Gasteizko aireportuko eta Goiaingo industrialdeko segurtasun eremuak ditugu, baita Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen arabera barrutietan ezarritakoak ere.

En cuanto a los terrenos no cinegéticos, son zonas vedadas para la caza los terrenos que no sean declarados cinegéticos, de régimen especial, o refugios de fauna, así como aquellos otros en los que se declare la veda por otras previsiones legales.

En Álava, existen zonas no declaradas cinegéticas, en las cuales no está permitida la caza. En estas zonas se pueden autorizar medidas de control para la población de especies cinegéticas por daños a la agricultura, y siempre a solicitud del titular del terreno (esperas, batidas perros sin escopetas y ganchos para el jabalí ….).

Esta superficie comprende principalmente los terrenos de las entidades que no se han constituido en acotado como son los de la Junta Administrativa de Saratxo, J.A. de Caranca-Mioma, terrenos de las JJAA de Hermua-Larrea, J.A. de Subijana de Alava, J.A de Audikana, JA de Barrón, núcleo de La Serna en el municipio de Laguardia, y las zonas vedadas de Berroci de la CAPV, de Kalikatxo en el municipio de Vitoria-Gasteiz, de Lacorzana, de Layaza en Laguardia y el Limitado colindante con Bizkaia.

En cuanto a las zonas de seguridad, así declaradas, tenemos la zona de seguridad de Vitoria-Gasteiz (incluida la base militar de Araka), la zona de seguridad de Zurbano, la zona de seguridad de Zuazo de Vitoria, y además las zonas de seguridad del Aeropuerto de Vitoria – Gasteiz y polígono Industrial de Gojain, así como las establecidas en los acotados conforme a la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de caza.

| | Ehiza lurrak Terrenos cinegéticos | Ehizakoak EZ diren lurrak Terrenos NO cinegéticos |
|---|---|---|
| **Azal. (ha) / Sup. (ha)** Guztira / Total 303.659 | 283.009 | 20.650 |
| % | 93,2 | 6,80 |

Hau da, azaleraren % 7an, gutxi gorabehera, ehiza ez dago baimenduta, ondasun eta pertsonentzako arriskuak saihesteko kontrol bitarteko gisa

Es decir, en el 7% de la superficie aproximadamente la práctica cinégetica no está permitida, salvo las excepciones autorizadas como medio de control para

baimendutako salbuespenak izan ezik. Gainera, ehizarako debekatutako azalera horri ehiza barruti bakoitzak bere perimetroaren barruan ehiza erreserba gisa gorde behar duen azaleraren % 10 gehitu beharko litzaioke, baita armak erabiltzea baimenduta ez dagoen beste segurtasun eremu batzuk ere, indarrean dagoen legediaren arabera.

Ehiza eta Arrantza Atalak laguntza teknikoa ematen die toki erakundeei, ehiza larriko eta ehiza xeheko barrutiak sortzeko eta iraungitzen direnak berritzeko aurkeztu beharreko araudiari, beharrezko baldintzei eta dokumentazioari dagokienez. Esparruen sozietate adjudikaziodunekin harremana izaten jarraitzen du jakiteko ea gorabeherarik egon den, eta esparruen urteko matrikularen ordainketa kudeatzen du.

Ehiza barrutiak gehienez ere hamar urterako eratzen dira, eta, epe hori igaro ondoren, iraungi egingo dira, berariaz berritzen ez badira. Dagozkien foru aginduen bidez, 2023an 20 ehiza barruti berritzeko eta beste bi zabaltzeko baimena eman da.

Ehiza barrutietan, ehiza antolatzeko plan tekniko (EAPT) baten arabera aprobetxatuko da ehiza. Plan hori teknikari eskudunek egingo dute, eta foru aldundiak onartuko du. Egitasmoek bost urteko indarraldia dute, eta, ondoren, beste bat aurkeztu beharko da ehiza lurraren indarraldia amaitu arte aprobetxamenduarekin jarraitu ahal izateko. Aurten 15 barrutik aurkeztu dute EAPTaren berritzea.

Urtero, gaitzen duen titulazio teknikoa duen pertsona batek Ehiza Jarraipenerako Plan bat egingo du EAPTaren eraginpeko lur bakoitzerako, barrutia kudeatzeko eta garatzeko tresna gisa. 2023an, barruti bakoitzari dagozkionak egin dira.

Ehiza barrutien informazio geografikoko sistema eta horri lotutako kartografia osatzen dituen informazioa aldian behin eguneratzen eta mantentzen jarraitzen da. Lan horiek eten egin ziren lan horien ardura zuen teknikariak bat-batean alde egin zuelako, eta, ondoren, lan horien arduradun berria prestatu ondoren, berriro ekin zitzaion lanari. Beraz, gaur



evitar peligros para bienes y personas. Además, a esta superficie vedada para la caza habría que añadir el 10 % de la superficie que cada coto debe mantener como reserva de caza dentro de su perímetro, y otras zonas de seguridad en las que no está permitido el uso de armas, conforme a la legislación vigente.

La Sección de Caza y Pesca asiste técnicamente a las entidades locales en cuanto a la normativa, condiciones necesarias y documentación que es necesaria aportar para la creación de cotos de caza mayor y menor y renovación de los que caducan. Mantiene comunicación con las sociedades adjudicatarias de los acotados en cuanto a posibles incidencias acaecidas y gestiona el pago de la matrícula anual de los acotados.

Los cotos de caza se constituyen por un periodo máximo de diez años, tras los cuales se extingen si no se renuevan de forma expresa. Mediante las correspondientes órdenes forales, se han autorizado en 2023, la renovación de 20 cotos de caza y la ampliación otros dos.

En los cotos, el aprovechamiento de la caza deberá realizarse conforme a un Plan Técnico de Ordenación Cinegética (PTOC) elaborado por personal técnico competente y aprobado por la diputación foral. Estos planes tienen una vigencia de cinco años, tras los cuales deberá presentarse otro para poder optar a continuar con el aprovechamiento hasta el fin de la vigencia del terreno cinegético. Durante este año 15 acotados han presentado la renovación del PTOC.

Anualmente se realizará, por parte de una persona con la titulación técnica habilitante, un Plan de Seguimiento Cinegético para cada terreno sometido a PTOC, como instrumento de gestión y desarrollo del acotado, en 2023 se han elaborado los correspondientes a cada uno de los acotados.

Se sigue con el mantenimiento y actualización periodica de la información que conforma el sistema de información geográfica de los cotos de caza y su cartografía asociada. Estos trabajos se vieron truncados por la repentina marcha de la Técnico encargada de los mismos, y retomada posteriormente tras la formación de la nueva persona encargada de

egun, informazioa eguneratuta dago, bai ehiza eta arrantzako basozainentzat, bai GeoAraba bisorearen web orrian.

**4.- web.araba.eus orria**

Ehiza eta arrantzari buruzko informazioa eguneratuta dago Nekazaritza eta Abeltzaintzaren atariaren barruko web.araba.eus webgunean, eta denboraldi osoan zehar astero argitaratzen dira ostegun, asteburu eta jaiegunetarako baimendutako uxaldiak, WEB unitatearekin koordinatuta.

WEB horretan bertan, ehizaldiaren egunean bertan uxaldiak egiten ari diren lurraldeko eremuei buruzko denbora errealeko informazioa kontsulta dezakete herritarrek. Denboraldian 850 uxaldi seinaleztatu dira guztira.

PREMIAZKOA da WEB eta MUGIKOR aplikazio berriak ezartzea, ehiza eta arrantza kudeaketa hobetzeko eta erabiltzaileen izapideak errazteko. Aurrekontu-murrizketak eta sailen beste lehentasun batzuk lantzen ari den arren, ehiza eta arrantza bulegoaren egunerokotasuna arintzeko funtsezko prozedura horiek abian jartzea baztertu du Atalak.

**5.- Ehiza eta Arrantzaren Ataria**

Ehiza eta Arrantzaren Ataria aplikazio informatiko bat da, non digitalizatzen baitira, besteak beste, barrutiei, azalera datuei, indarraldiari, titularren eta adjudikaziodunen harremanetarako datuei eta ehiza esparruen eta denboraldien arabera eskatutako ehiza larriko uxaldiei buruzko informazio guztia, bai eta haien emaitzak ere, uxaldi parteetatik edo aktetatik abiatuta.

Datuak grabatzea eta mantentzea bi barruti elkarteetako teknikariei dagokie, bai eta barrutien tratamendu orokorra digitalizatzeaz, baimenak emateaz eta lotu gabeko barrutietako datuak erregistratzeaz, ehiza lizentziak kudeatzeaz eta kontrol neurriak (itxaronaldiak, txakurrekin egindako uxaldiak eta armarik eta kakorik gabekoak) digitalizatzeaz arduratzen diren Ataleko langileei ere. Gero eta gehiago eskatzen dira holakoak, barrutiek eta barrutirik gabeko toki

los mismos, por lo que actualmente la información se mantiene actualizada tanto para los guardas forestales de caza y pesca, como en la página web en el visor GeoAraba.

**4.- Página web.araba.eus**

Se mantiene actualizada la información de Caza y Pesca en la web.araba.eus dentro del portal de Agricultura y Ganadería, publicandose además semanalmente durante toda la temporada las batidas autorizadas para los jueves, fines de semana y festivos en coordinación con la Unidad WEB.

En esta misma página WEB se puede consultar por parte de al ciudanía la información en tiempo real de las zonas del territorio donde se están desarrollando las batidas el mismo día de la cacería. En la temporada se han señalizado un total de 850 batidas.

Es URGENTE implementar nuevas aplicaciones WEB y MOVIL para mejorar la Gestión cinegética y piscícola y facilitar los trámites de los usuarios de la misma. Aunque la Sección trabaja en este sentido las restricciones presupuestarias y el establecimiento de otras prioridades departamentales relega la puesta en marcha de estos procedimientos fundamentales para agilizar el dia a día de la oficina de caza y pesca.

**5.- Portal de Caza y Pesca**

El portal de Caza y Pesca es la aplicación informática en la cual se digitalizan entre otros datos, toda la información referente a los acotados, datos de superficie, periodo de vigencia, datos de contacto de los titulares y adjudicatarios, así como las batidas de caza mayor solicitadas por cotos y por temporada, además de los resultados de las mismas a partir de los partes o Actas de Batidas.

La grabación y el mantenimiento de los datos, corresponde tanto a los técnicos de las dos asociaciones de cotos, como a personal de la Sección que se encarga de la digitalización del tratamiento general de los cotos, las autorizaciones y registrar los datos de los cotos no asociados y la gestión de las licencias de caza así como de la digitalización de las medidas de control (esperas, batidas con perros y sin armas y ganchos), cada vez más demandadas, solicitadas por los acotados y las entidades locales

erakundeek eskatuta. Atalak ere grabatzen ditu eskaera eta parte horiek.

Ehiza eta Arrantza Atalak ehiza larriko espezieentzako, basurdeentzako, orkatzentzako eta oreinentzako beharrezko zigiluak ematen dizkie ehiza barrutiei, kasuan kasuko elkarteen bidez, eta, zuzenean, elkartuta ez dauden barrutiei, bai eta nekazaritzan izandako kalteen ondoriozko kontrol neurriren bat eskatzen duten toki erakundeei ere. Erabili gabeko zigiluak elkarteekin batera kudeatu, kontrolatu, entregatu eta itzultzen dira, bereziki kupo jakin bat duten espezieei dagokienez, hala nola orkatza eta oreina.

Estatistikak eta datuak Ehiza eta Arrantza Atariaren barruan dauden datu baseetan erregistratzen dira.

Atari hori askotariko programazio estandarrak dituzten aplikazioek emandako informazioaz elikatzen da, eta horrek arazoak sortzen ditu jardueraren kudeaketa integrala egiteko garaian sortzen diren eta ezinbestekoak diren aldaketak planteatzeko garaian.

Premiazkoa da aplikazio informatiko berri bat egitea, gaur egungoen datuak txertatuz eta estandar beraren pean atalean kudeatzen diren eremuak integratuz. Barrutiak, espezieak, kalteengatiko kontrolak... Eta hori guztia datuak ikusi ahal izateko ingurune grafiko bati zuzenean lotuta.

**6.- Ehiza lizentziak ematea**

Ehiza lizentziari eta ehizan egiteko gaitasunaren azterketari buruzko uztailaren 29ko 160/2014 Dekretuak arautzen du.

Araban 7.501 ehiza lizentzia emanda zeuden 2023ko abenduaren 31rako.

2023ko datuak 2022ko abenduaren 31ko datuekin alderatuta, ikus daiteke lizentzien kopuruak ia berdin jarraitzen duela. 65 urtetik gorako ehiztarien ratioak gora egiten jarraitzen du, ordea, ehiztari guztien aldean. Urtetik urtera zahartuz doan kolektibo baten joerari eusten zaio.



sin acotado. La grabación de estas solicitudes y partes también corresponde a la Sección.

La Sección de Caza y Pesca proporciona a los cotos a través de las respectivas asociaciones y directamente a los cotos no asociados, así como a las entidades locales que soliciten alguna medida de control por daños en la agricultura, los precintos necesarios para las especies de caza mayor, jabalí, corzo y ciervo. La gestión, control, entrega y devolución de los precintos no utilizados se hace de forma conjunta con las asociaciones, especialmente en lo referente a las especies que tienen un cupo determinado, como son el corzo y el ciervo.

Las estadísticas y datos se registran en las diferentes bases de datos que se engloban dentro del Portal de Caza y Pesca.

Este portal se alimenta de la información suministrada por diferentes aplicaciones con estándares de programación muy variados lo que genera problemas a la hora de plantear modificaciones que van surgiendo y resultan imprescindibles a la hora de realizar una gestión integral de la actividad.

Es urgente realizar una nueva aplicación informática que incorporando los datos de las actuales, integre bajo un mismo estándar  los diferentes campos que en la sección se gestionan. Cotos, especies, controles por daños…. Y todo ello directamente vinculado a un entorno gráfico donde poder visualizar los datos.

**6.- Expedición licencias de caza**

Viene regulado por el Decreto 160/2014, de 29 de julio, de la licencia de caza y el examen de aptitud para cazar.

El número de licencias de caza a 31 de diciembre de 2023, expedidas en Alava es de 7.501.

Comparando los datos del año 2023 respecto del 2022 a 31 de diciembre, se puede observar que el número de licencias se mantiene prácticamente igual. Sin embargo vemos que la ratido de las personas cazadoras de más de 65 años respecto al global sigue aumentando. Se mantiene la tendencia de un colectivo cada año más envejecido.

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 JASANGARRITASUNA, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEA

**Programa:** 179400 EHIZA ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 40 SOSTENIBILIDAD, AGRICULTURA Y MEDIO NATURAL

**Programa:** 179400 ORDENACIÓN Y GESTIÓN CINEGÉTICA

| URTEA AÑO | 65 urtetik beherakoak (ordaindu beharreko lizentzia) Menores 65 años (licencia de pago) | 65 urtetik gorakoak (doako lizentzia) Mayores 65 años (licencia gratuita) | Guztira Total |
|---|---|---|---|
| 2023 | 3.464 | 4.027 | 7.501 |
| 2022 | 3.555 | 3.939 | 7.494 |

**7- Ehizatzeko gaitasunaren azterketa**

Eusko Jaurlaritzak, 2023ko otsailaren 1ean, apirilaren 22an Gasteizen ehiztari azterketa egiteko deialdia argitaratu zuen.

Arabako Foru Aldundiko Ehiza eta Arrantza Atala arduratzen da, ezarritako txandakatzearen arabera, ekitaldia antolatzeaz eta Euskal Autonomia Erkidegoko hautagaientzako proba egiteaz.

Guztira, 352 pertsona aurkeztu dira azterketara, 277k gainditu egin dute, eta 75ek ezin izan dute gainditu.

Horrelako azterketak Europa Biltzar Jauregian egiten diren lehen aldia da, eta horren garapenaren balorazioa positiboa da, inolako gorabeherarik gabe.

Gai horri dagokionez, 2023an beste bi aldundiekin bildu gara, eta azterketa mota horiek arautzen dituen araudia aldatzeko proposamen dokumentu bat adostu dugu. Proposamena Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zaio, azter dezan.

**8.- Ehiza baimenetarako eskaerak**

8.1.- 2019ko uztaileko 225/2020 Foru Aginduaren II. eranskinaren arabera, non ezartzen baita Arabako Lurralde Historikoan usoak eta birigarroak ohiko pasalekuetan ehizatzeko baldintza espezifikoak arautzen dituen araudia, 2023an 14 espediente onetsi dira zenbait ehiza barrutitan, 38 uso eta txabola postu emateko, birkokatzeko eta/edo baliogabetzeko, bai eta postuen inbentarioa grafikoki eta digitalki eguneratzeko ere.

8.2.- Ehizari buruzko uztailaren 13ko 225/2020 Foru Aginduaren II. eranskinaren arabera, non ezartzen

**7- Examen de aptitud para cazar**

Con fecha 1 de febrero de 2023, Gobierno Vasco publica la convocatoria del examen de cazador que celebrara el 22 de abril en Vitoria – Gasteiz.

La Sección de Caza y Pesca de la Diputación Foral de Álava, según rotación establecida, es la encargada de organizar el evento y realizar la prueba para aspirantes de todo el Pais Vasco.

De 352 personas presentadas a la misma, superan la prueba un total de 277 y 75 no logran pasarla.

Es la primera vez que este tipo de pruebas se celebra en el Palacio de Congresos Europa y la valoración del desarrollo de la misma es positiva transcurriendo sin inciedencias.

Con relación a este asunto a lo largo de 2023 nos hemos reunido con las otras dos diputaciones y acordado un documento-propuesta para la modificación de la normativa que regula este tipo de pruebas que se ha presentado a Gobierno Vasco para su estudio.

**8.- Solicitudes autorizaciones caza**

